

TABAKALERA



**EGONALDI  
DEIALDIA:**

**PROIEKTU  
ARTISTIKOA**

KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA

CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL  
CENTRE FOR  
CONTEMPORARY  
CULTURE

[tabakalera.eus](http://tabakalera.eus)



## 1. AURKEZPENA

Tabakalerak, sorkuntzarako gunea den aldetik, nazioarteko egonaldi-programa bat du, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programa honen helburu nagusia arte-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpenarekin.

Programa honen eta Tabakaleran dauden beste batzuen bitartez, espazio bat sortu nahi da askotariko eragileak eta beren proiektuak elkarrekin bizi daitezen, eta, hala, egoiliarrek eta eragile gonbidatuek elkarrekin lan egiteko aukera izan dezaten.

Tabakalerako kultur programak lan-ildo zehatz batzuk garatu ditu, mundu garaikideari buruzko hausnarketaren eta eztabaidaren inguruko askotariko interes-ildoak egituratzen dituztenak. Tabakalerak, hainbat programazio-ardatzen bitartez, gizarte garaikideari eragiten dioten gaiak hurbildu nahi dizkio publikoari.

Egonaldien nazioarteko deialdiak programazio-ardatz horiei jarraitzen die, eta gure programako arloak elkarrekin lotzeko asmoa duela erakutsi du; horrenbestez, funtsezko funtzioa du prozesu honetan. Hala, aukera ezin hobea eskaintzen du hala bertako nola nazioarteko eragile berriekin lankidetzan aritzeko, zeinak ezinbesteko pieza baitira Tabakalera proiektuari aberasten eta hazten laguntzeko.

## 2. XEDEA

Deialdi honen helburua da proiektu artistikoen garapena babestea, edozein formatutan eta diziplina artistikoa alde batera utzita; eta, era berean, tokiko sare artistikoa indartzea eta komunitate artistikoen arteko trukea sustatzea.

Deialdian parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoan (hemendik aurrera EAE) bizi diren artista edo eragile kulturalak, bai eta Estatukoak eta nazioartekoak ere. Aurkeztutako proiektu guztietatik **hiru** proposamen aukeratuko dira.

Egonaldiak **hamaika** asteko iraupena izango du, 6. klausulan adierazitakoaren arabera, eta arte-proiektua garatzeko lekua, testuingurua eta denbora eskainiko ditu. Egonaldia, **2024ko urriaren 7 eta abenduaren 22** bitartean gauzatuko da.

## 3. HAUTAGAIK / PARTE-HARTZAILEAK

Deialdian parte hartu ahal izango dute partzialki edo soilik arte garaikidearen sektorean proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridiko, EAEko biztanleak, Estatukoak edo nazioartekoak, dela eremu horretan jarduten direlako, dela sektore horretan ibilbide profesionalari ekin nahi diotelako.

Halaber, hainbat pertsona fisiko edo juridiko deialdiari, aurkeztu ahal izango dute, haien artean erlazio formalizaziorik eskatu gabe. Kasu honetan 5. klausulako azken paragrafoan jarritakoa eman ahal izango da.



#### **4. HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK**

Proiektuak baloratzeko batzorde misto bat osatuko du Tabakalerak, sektoreko profesionalak eta berezko pertsonekin. Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Berrikuntza eta originaltasuna.
- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak/ek bere/n aldetik nahiz taldeko gainerako kideekin batera orain arte garatutako ibilbidearekin.
- Bideragarritasuna eta Tabakalerak dituen bitarteko eta lan-espazioetara egokitzapena.
- Tabakalerako egoiliar programarekin eta lekuko testuinguruko jarduera artistikoarekin joan-etorriko bideak sortzeko gaitasuna.
- Tabakalerak sustatutako interes-ildoetara egokitzea.
- Proiektuaren bideragarritasuna eta heldutasuna, Tabakalerako etorkizuneko erakusketa-programetan parte hartu ahal izateko.

Batzordeak deialdia hutsik utzi ahal izango du aurkeztutako proiektuetariko bakar batek ere ez badu biltzen meritu nahikorik egonaldirako. Era berean, egonaldi honetarako zuzendutako baliabideak Tabakaleran garatzen den beste ekitaldi batetarako esleitu ahal izango ditu.

#### **5. EGONALDIRAKO LAGUNTZA**

Egonaldia Tabakalerak Donostian dituen instalazioetan egingo da. Programak prestazio hauek eskaintzen ditu:

1. Bidaia eta ostatua:
  - 1.1 EAetik kanpo bizi direnentzat:
    - Joan-etorriko bidaia bat bere ohiko bizilekutik edo unean dagoen tokitik.
    - Gela bikoitza (banakako erabilera), bainugela, lanerako txoko bat eta wifiarekin; sukaldea eta egongela partekatuak. Ereku komun horretarako sarbidea zentroak ezarritako erabilera-arauen arabera arautu ahal izango da.
  - 1.2. EAE-n bizi direnentzat:
    - Donostia edo ingurutik kanpo bizi bada, ostatua ere izan ahalko du, aurreko puntuan aipatutako ezaugarri berdinekin, edo/eta 500€ko gehieneko kopurua hilabetero, garraiorako.
2. Aseguru medikua, artista edo eragilea Europakoa ez den kasuan.
3. Egonaldiko hilabete bakoitzeko 1.000 euro gordin, dieten eta mantenuaren kontzeptuan. Zenbateko hori txeki izendunaren bidez emango da. Horri egoiliar bakoitzaren zerga-egoerari dagokion atxikipena aplikatuko zaio. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da (036 eredu, estatuko egoiliarren kasuan, eta egoitza fiskaleko ziurtagiria, atzerriko egoiliarren kasuan).
4. Lanerako espazio bat Tabakaleraren ekoizpen-gunean, oinarrizko behar guztiekin: argia, korrante hartuneak, proiektu bakoitzerako oinarrizko altzariak.
5. Sukalderako eta gune komunetarako sarbidea.
6. Tabakaleraren sorkuntza-liburutegi espezializatuko funtsetarako sarbidea.
7. Irudi eta soinu edizioko estudioetara eta plato/praktika eszenikoetarako espaziora sarbidea.
8. Baliabide teknikoak eta Tabakalerako lan-taldearen laguntza, behar eta aukeren arabera.



9. Laguntza ekonomiko gehigarria, 2.500€ gehienez, ekoizpen-prozesuari dagozkion gastuak estaltzeko asmoz, nahitaez aipaturiko ekoizpenera zuzenduko direnak. Ekipamendu teknologikoen erosketak ez dira onartuak izango. Ekoizpenera bideratutako kopuru hori xede horretarako esleitutako Tabakalerako langileek kudeatuko dute. Tabakalerak ez du bere gain hartuko esleitutako taldeak aldeztu aurretik adostu eta onetsi ez duen gasturik. Egoiliarrek 2.500 €-ko aurrekontutik, gehienez 500 € bideratu ahal izango ditu berezko ordainsari gisa, fakturak dagokion epean aurkeztuta. Horretarako, indarreko legediaren arabera eskatutako betekizun guztiak bete beharko ditu deialdi honen ebazpenaren unean.

Azkenik, Tabakalerako taldeak garatuko den proiektuaren jarraipena egingo du, baita testuinguruan jartzeko lana ere; horretarako, egoiliar bakoitza harremanetan jarriko du lurraldeko ikuspegiaren parte diren hainbat eragile, proiektu eta ekimenekin, horren bidez harremanak eta loturak sortzen laguntzeko xedez. Horretarako, egoiliarren prestasun osoa eskatuko da egonaldian zehar.

**Ohar argigarria:** Aukeratutako proiektua kolektibo batek aurkeztu badu (hainbat pertsona fisiko edo juridikok, elkarren arteko harremanak formalizatzeko 3. klausulako bigarren lerrokadan adierazitako moduak bete beharrik izan gabe), adierazitako prestazioak kolektiboak berak izendatutako pertsona fisikoari emango zaizkio, eta Tabakalerak diskrezioz erabakita. Aldez aurretik finkatutako aurrekontuan oinarrituta, hala dietak nola ostatua eta egonaldiaren denbora egokituko dira. Oinarrietan ezartzen den zenbatekoa ez da inola ere proposamena bidaltzen duten pertsona kopuruarekin biderkatuko.

## 6. EGONALDIAREN IRAUPENA ETA GARAPENA

Egonaldiak **hamaika** asteko iraupena izango du, **2024ko urriaren 7 eta abenduaren 22 bitartean** gauzatuko da. Batzordearekin batera adostuko da egonaldiaren iraupen zehatza, Tabakalerak bere programazioan barruan dituen aukera eta konpromisoen arabera.

## 7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdira aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- Onartutako eskaera bertan behera utziz gero, hautagaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.
- Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziora huts egiteak egonaldia eta emandako laguntzak bertan behera uztea ekar lezake.
- Egonaldia bera eta haren inguruan sortutako jarduerak Tabakalerak egonaldi-programaren eta lan-espazioak lagatzeko programaren inguruan garatzen duen programazioan sartu ahal izango dira.
- Tabakaleran izan eta gero, beren egonaldiari buruzko memoria bana aurkeztu beharko dute egoiliarrek.
- Egonaldia obra edo argitalpenen bat ekoizteko erabiliz gero, Tabakaleraren izena jarri beharko da kredituetan.
- Tabakalerako espazioaren erabileraren arauak jarraitu.



## 8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko epea 2024ko otsailaren 12etik apirilaren 15eko 12:00ak (eguerdia) [UTC+1] arte egongo da zabalik. Deialdien emaitza, 2024ko ekainaren 7an jakinaraziko da, eta ebazten denetik 15 eguneko epean, Tabakaleraren webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da.

Izen-ematea Tabakalerako webgunearen bitartez egitea beharrezkoa da; horretarako, izen-emate orria bete eta jarraian zehazten den hurrenkeran, hurrengoko dokumentazioa atxikitu beharko da:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena eta hautagaiek zergatik egin nahi duten proiektuaren fase hori Tabakalerako egoiliar diren bitartean (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
3. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.
4. Gutxienez aurretiaz garatutako 4 lanen aurkezpena, bakoitzaren irudiekin.
5. Proiektu garapenerako gorabeherako aurrekontua, bai eta premia guztien aurreikuspena ere.
6. Egoiliar den aldirako aurreikusitako lan-egutegia.
7. CVa eta bibliografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).

Dokumentazio guztia PDF formatuko (gehienez 10 mega, 10 orrialde) dokumentu baten bitartez helaraziko da; dokumentuaren izena modu honetara adierazi beharko da: Izena\_abizena\_modalitatea; adibidez: martin\_bilbao\_arte\_proiektua.

Bestetik, helarazten den dokumentazioa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez egongo da idatzita. Euskaraz edo gaztelaniaz baldin bada, nahitaez laburpen bat atxikituko da ingelesez. Hau edo bestelako dokumentazioren bat falta bada, epaimahaiak proiektua ezeztatzeko eskubidea izango du.

## 9. JABETZA INTELEKTUALA

Hautagai edo parte-hartzaile eta hautatutako onuradun guztiek bermatuko dute, bai (i) eskaeraren alorrean, bai (ii) oinarri hauen xede diren baliabideak erabiltzen dituen proiektua gauzatu bitartean Tabakalerari ematen dioten dokumentazio grafikoa, testuala edota ikus-entzunezkoa jatorrizkoa dela eta ez duela hirugarrenen jabetza eskubiderik urratzen. Ondorioz, Tabakaleraren aurrean edo haren hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute, material horien inguruan hirugarrenek jabetza intelektualaren harira erreklamazioaren bat aurkeztuz gero; gainera, kalte-ordaina eman beharko diete entitate horiei, adierazitako kontzeptuekin zerikusia duten erreklamazioek sor diezazkieten kalte eta galera guztiengatik.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari edozein euskarritan erabiltzeko aurkeztutako dokumentazio grafikoa, testuala edo ikus-entzunezkoa, oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta laguntza horiek jasotzen dituen proiektua exekutatzeko xede bakarrarekin

Aurreko guztiak ez die kalterik egingo egile-eskubide moralei eta dokumentazio grafikoaren, testualaren edota ikus-entzunezkoaren gaineko jabetza intelektualaren ondare-izaerako eskubide guztien titulartasunari. Dokumentazio horiek onuradunenak izaten jarraituko dute.



## 10. DATU PERTSONALEN BABESA

Hautagai edo parte-hartzaileei jakinarazten zaie oinarri hauek onartzearekin batera baimena ematen diotela Tabakalerari eskaera aurkezteko unean eta oinarri hauen xede diren baliabideekin lagundutako proiektua gauzatzean emandako datu pertsonalak tratatzeko, baldin eta hautatuak izaten badira. Tratamendu horren xedea izango da eskaera izapidetu eta kudeatzea, baita esleitzen diren laguntzak baliatzea, eta, gero, laguntza horiek jasotzen dituen proiektua hedatzea.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta horretarako betebeharrak legala baldin badago. Halaber, jarraian datorren 11. klausulan xedatutakoa betetz, laguntza jaso duten onuradunen irudia eta izena hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie Tabakalerak oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta haiekin lagundutako proiektuak gauzatzeko erabiliko dituen jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru horretan, adierazten da datu pertsonal horiek aurkeztea beharrezkoa dela; izan ere, datu horiek ez badira aurkezten, ezin izango dira kontuan hartu laguntzaren eskaera eta deialdiako parte-hartzea.

Hautagaien edo parte-hartzaileen datu pertsonalak gorde egingo dira haien proposamena baloratzeko eta, hala badagokio, laguntzak emateko eta baliatzeko kudeaketa egiteko behar-beharrezkoa den denboran, bai eta Tabakaleraren legezko betebeharrak betetzeko kontuan hartu beharreko kontserbazio-epe gehigarrian ere.

Edonola ere, hautagaiei edo parte-hartzaileei eta hautatutako onuradunei jakinarazten zaie honako eskubide hauek dituztela: (i) euren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko, datu horien tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasuna eskatzeko eta tratamenduari uko egiteko. Horretarako, [pgaraikideak@tabakalera.eus](mailto:pgaraikideak@tabakalera.eus) helbide elektronikora bidalitako eskaera egin beharko dute; (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren edo beste edozein kontrol-agintaritzaren eskudunen aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea, bereziki euren eskubideak baliatzean gogobeteta geratu ez badira.

## 11. IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartzearekin batera, hautatutako onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari honako hauetarako: (i) baliabide tekniko egokien bidez haien irudia erregistratzeko (argazkiak, bideoak, etab.); (ii) irudi horiek eta izena eremuak-en webgunean eta beste edozein euskarritan, bai fisikoa eta bai elektronikoa, erabili eta erreproduzitzeko, bere kontrolpean edo hirugarren laguntzaileen kontrolpean. Horren xede bakarra izango da oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta haiekin lagundutako proiektuak exekutatzeko. Baimen hori ezeztatzen da.

## 12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +: [pgaraikideak@tabakalera.eus](mailto:pgaraikideak@tabakalera.eus)

[www.tabakalera.eus](http://www.tabakalera.eus)